



MODES IRAOLA ▶ EHIZTARIA

«Itxaropentsu joan behar da, bestela ez dago zer eginik»

ZIZURKIL ▶

Asteburuan
Italian lehiatuko
da Munduko
Txapelketan

EHIZTARIA ▶

San Huberto
eran ariko da
Espainiako
txapelduna ▶ 4



Modes Iraola ehiztari zizurkildarra. HITZA



M. SOROA

Herriko plaza, berritze lanetan

BERROBI ▶ Aparkaleku pribatuak izango dituen plaza berrituko dute, eta haurrentzako parkea eta aparkaleku publikoa egingo dituzte ▶ 6

ARESO ▶

«Arrakasta»
ehiza
postuen
enkantean

laz baino jende
gehiago izan da ▶ 7

ALBIZTUR ▶

Baserrien seinaleak,
koskak eta markesinak
«biztanleen hoberako»

Labaka alkateak «balio anitzeko gela
bat egiteko asmoa» azaldu du ▶ 5

KILOMETROAK 06
inNeu! inYeu!

MILA ESKER!!

ZOKMETEN ZENBAKI SARTITUAK:

- Kotxearen zozketa: **24.535** zenbakia.
- OHARRA: Zenbaki sartitak 2006ko azaroaren 2an goizeko 10:00etan balioa galduko du. Momentu horretan erreserbako 1. zenbakia indarrean jarriko da.
- Kruzeroaren zozketa: **21.722** zenbakia.

**eta ez ahaztu...
NAFARROA OINEZ
urriaren 15ean BERAN**

HAUTZARO
URSTOLA

ARETO FUTBOLA ▶

Berdinketa erdietsi du Hegoaldeko Mainfer taldearen aurka

2-2ko emaitzarekin amaitu zuten ligako bigarren partida; Itziar atezainaren lana azpimarratu du entrenatzaileak



Hegoaldeko taldeko neskek entrenamendu batean. ESTI EZEIZA

ERREDAKZIOA

Denboraldiko bigarren partida jokatu zuten Hegoaldeko neskek iragan igandean, Zaragozan (Espainia), bertako Mainfer taldearen aurka, eta 2-2ko berdinketarekin amaitu zen norgehiagoka.

Daniel Garcia entrenatzailearen arabera, «oso urduri ekin zioten partidari tolosarrak, «zehaztasun gutxi teknikan eta antolakuntza eza defentsan». Hala, hutsartea eskatu beharra izan zuen Garciak hasi eta segituan, «arerioen erasoak etengabeak baitziren». Bestalde, partidaren 5. minutuan, Tamarak, Hegoaldeko atezainak, partida utzi beharra izan zuen lesioagatik, eta bere ordez Itziar atera zen. Itziarrek «lan bikaina» egin zuen, eta atsedenaldira arte ederki babestu zuen bere atea,

HEGOALDE ▶ 2

MAINFER ▶ 2

Hasierako bostekoa.

Tamara; Maider; Edurne; Ana Berciano; Amaia.

Aldaketak. Sarah; Emi; Iguntze; Miriam Arana; Itziar.

Golak. 0-1: Iguntze (29. minutuan); 0-2: Sarah (34. minutuan); 1-2: Pilar (35. minutuan); 2-2: Pilar, penaltiz (37. minutuan).

izan ere aukera ugari izan zituzten Mainfer taldeko neskek.

Bigarren zatian, tolosarrek maila hobea erakutsi zuten, eta beraiek izan ziren markagailuan aurretik jarriko zirenak. 8. minutuan izan zen, Sarah-k baloia Iguntzeri pasa zion, eta honek jaurtiketa gurutzatua eginenez gola egin zuen. Lehenengo

zatian ez bezala, nahiko parekatua izan zen bigarrena, mailari dagokionez. 14. minutuan, Sarah izan zen kornurretik zertorren baloiaz baliatu eta bigarren gola sartu zuena. 0-2koa zen tolosarren alde. Zaragozako taldeak gola egiteko aukera garbiak izan zituen, baina Hegoaldeko atezainak «geldiketa handiak» egin zituen. 35. minutuan, ordea, Mainfer taldeko 11. zebakidun Pilar jokalaririk banakako jokaldia eginez baloia tolosarren atean sartu zuen. Eta, bi minutu berandago, jokalaririk bera izan zen penaltiz 2-2ko berdinketaren gola sartu zuena. Partidaren azken unean bi taldeek gola egiteko aukerak izan arren horrela bukatu zen azkenean norgehiagoka. Epailen lana azpimarratu dute tolosarrek, eta batez ere, Itziar atezainak eginiko partida «ikusgarria».

GIZARTEA ▶



Voith-Gorostidi eremuko urbanizazio proiektua. HITZA

644 eskaera, Voith-Gorostidiko tasatuetan

Urte bukaerarako behin betiko zerrendak izango dituztela espero dute Udalean

I. TERRADILLOS

Herenegun izan zen Arramele auzoko Voith-Gorostidi eremuko toki babeseko edota etxebizitza tasatuetan eskaerak aurkezteko azken eguna. Aitziber Lazkanok Tolosako udaletxeko Voith-Gorostidi bulegoko arreta arduradunak adierazitakoaren arabera, orotara, 644 izan dira jaso dituzten eskaerak.

Datuei erreparatu gero, eta aste batez atzera egiten badugu, azken 4 egunetan 74 eskaera berri jaso dituztela ikusi ahal dugu, pasa den asteartean 570 baitzituzten jasoak. Eskatzaileen artean, berriz, 25 eta 35 urte artekoak izan dira gehienak, 36 eta 50 urte artekoak ondoren, 18 eta 24 urte bitartekoak gero, eta 50 urte gorakoak gainerakoak. Bestalde, %75 inguru banakoak dira, eta bikoteak gainerakoak.

Behin eskaerak jasota, eskatzaileek zozketan parte hartzeko jarritako baldintzak betetzen dituzten ikusiko dute. Urte bukaerarako espero dutela zerrendak izatea azaldu dute Udaletik.

DATUAK ▶

Arramele auzoko Voith-Gorostidi eremuan 675 etxebizitza eraikiko dituzte denera, babes ofizialekoak, tasatuak eta libreak kontuan hartuta.

ETXEBIZITZAK

Tasatuak edo toki babesekoak. 290.

Babes ofizialekoak. 135.

Libreak. 250.

TASATUAK

Prezioa. 105 metro karratukoak 192.000 euro, hau da, 32.000.000 pezeta. Trastelekua eta garajea ere eskatzen badira, 4.000.000 pezeta gehiago.

PROZESUA

Behin-behineko zerrenda. Azaroan aterako dute. **Behin betiko zerrenda.** Urte bukaeran izatea espero dute. **Zozketa.** Erabakita ez egon arren, 2007ko udaberriaren egitea aurreikusi dute. **Obrak.** Azaroaren hasieran hasiko dira Voith-Gorostidi eremuko lantegiak botatzen.

▶ hilberriak ▶ urteurrenak ▶ eskertzak

Gipuzkoan 50.000 etxetara

HITZA guztietan prezio beragatik

ESKELAK

19:00ak arte hartzen dira

Telf.: 943 65 56 95

tolosaldean@tolosaldeko-hitza.nfo



KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA

KULTURA ▶
ESTI EZEIZA

Urriko lehen egunetan gauden honetan, hil honetako kultur eskaintza zabalaren berri ematen du ondorengo lerroetan **TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK. 750. urteurreneko ospakizun nagusiak** amaitu badira ere, ekitaldi garrantzitsu ugari gauzatuko dituzte ondorengo egunetan ere. Horren adibide dira: **38. Abesbatza Lehiaketa**, VIII. Garagardo Azoka, Probintziako 37. Abelgorri Lehiaketa... Horrez gain, nabaria da Leidorren irekiera, zine emanaldiez gain, hainbat jardunaldi bertan gauzatuko baitira.

ZINE FORUMA

'**Escondido**'. Michael Haneke-ren filma ikusgai izango da Leidor antzokian, bihar, 21:30ean. '**Cruzando el puente. Los sonidos de Estambul**'. Fatin Akinen filma izango da ikusgai Leidorren, hilaren 19an, 21:30ean.

Hilak 26. Oraink filma zehazteke badago ere, 21:30ean emanaldia izango da.

ZINE - KLUBA

'**Poseidon**'. Bonberenean izango da ikusgai, hil honen 8an. '**Super Nacho**'. Bonberenean izango da ikusgai, hilaren 22an.

IKASTAROK

Eskaparatismo ikastaroa. Hilaren 16tik 20ra bitartean egingo da Kultur Etxean. Merkataritza Federazioak antolatuta, 14:15ean izango dira jardunaldiak.

Boluntariotzako Oinarrizko Ikastaroa. Bertan izena emateko epea amaituko da hilaren 27an.

KONTZERTUAK

Fastuosos de la rivera. Musika taldeak kontzertua eskainiko du etzi, Fronton Kafetegian, 23:00etatik aurrera.

Chicarella eta Une. Hilaren 6an izango dira entzungai Bonberenean, 22:30ean.

Biok eta Pog mo thon. Kontzertua eskainiko dute hil honen 7an, Bonberenean, 22:30etik aurrera.

Sorkun eta Moksha. Hilaren 13an izango dira entzungai Bonberenean, 22:30ean.

Kerobia eta Etxe. Kontzertua eskainiko dute Bonberenean, hilaren 20an, 22:30ean.

Bad Sound System. Bonberenean izango dira entzungai hilaren 21ean, 22:30ean.

Def Con Dos. Beraien biraren amaierako kontzertua eskainiko dute hilaren 27an, Bonberenean, 22:30etatik aurrera.

Zea Mays, Eraso! eta Jone. Hiru taldeak izango dira entzungai, Bonberenean,

Urteurrena eta gero, badago zer ikusi

Kultur jarduera ugari izango dira hil honetan ere



Joan den urteko irabazlea Norvegiako Schola Cantorum abesbatza izan zen. IÑIGO TERRADILLOS

22:30etik aurrera, *Suffle* DVDaren aurkezpenen.

HITZALDIAK

'**Poesia, zeinuen hizkuntza**'. Gainditzenek antolatuta hitzaldi bat eskainiko dute Kultur Etxean, etzi, 19:30etik aurrera.

'**Etxebizitza**'. Gai honen inguruan mintzatuko dira EGKkoen hitzaldian. Hau, hilaren 17an izango da, Kultur Etxean, 19:30ean.

'**Formakuntza eta enplegua**'. Gainditzenek antolatuta, gai honen inguruko hitzaldi bat izango da entzungai Kultur Etxean, hilaren 28an, 09:00etan.

'**Medikuntza eta kirola**'. Gai honen inguruko kongresu bat ospatuko dute, hil honen 19tik 21era, Leido antzokian.

DANTZA EMANALDIAK

Samannaya. Indiako dantza talde honek emanaldi bat eskainiko du Leidor aretoan. Saioa, hilaren 14an izango da, 20:00etatik aurrera.

Aukeran dantza taldearen saioa. Dantza taldeak *Bideak* izeneko saioa eskainiko du Leido antzokian, hilaren 27an, 22:30etan.

Balet tallerrekoen emanaldia. Hil honen 28an izango da, Leidor antzokian, 16:30etan.

BESTELAKOAK

Proiekzio dokumentala. EGKkoek eskainiko dute, etxebizitzaren inguruan, hil honen 10ean.

Txirri, Mirri eta Txiribiton`ju-



Aukeran dantza talde gipuzkoarra emanaldi batean. HITZA

nior'. Pailazo gazteen emanaldia izango da Leidor aretoan, hilaren 7an, arratsaldeko bostetan.

Abesbatzen Nazioarteko Lehiaketa. Tolosako Ekinbide Etxeak (TEE-CIT) antolatuta, 38. edizioa ospatuko dute hil honen 31tik azaroaren 5era bitarte. Sarrerak salgai jarri dituzte dagoeneko, egoitzan bertan.

VIII. Garagardo Festa. Zerkautsian egingo dute, bihartik igandera bitartean.

Tolosako XX. Gazta Lehiaketa.

Beotibar pilotalekuan ospatuko da, larunbat honetan goiz guztian zehar.

Probintziako 37. Abelgorri Lehiaketa. Ferialekuan egingo da, larunbat honetan, goiz guztian zehar.

Ipuin kontaketa. 3 eta 6 urte bitarteko haurrentzat, Maite Francoren eskutik izango da hilaren 10ean. Hau, Errota Haur liburutegian egingo dute, 18:00etatik aurrera.

Graffiti erakustaldia eta 6. Skate Txapelketa. Bonberenean izango da, hilaren 21ean.

ZABALA DESGUAZEA


- Plan Prebererako zertifikatuak egiten ditugu.
- Txatarrerako kotxeak biltzen ditugu.

Tel./Faxa: 943 67 17 90 • 696 593 347
Beotibar Industrigunea, 18 • BELAUNTZA

KULTURA ▶

38. Abesbatza Lehiaketarako abonoak salgai

Hil honen bukaeran Tolosan ospatuko den 38. Abesbatza Lehiaketarako abonoak salgai daude dagoeneko. Hauek, hilaren 16ra Arte erosi ahal izango dira, 17:00etatik 20:00etara, TEEko bulegoan.

HEZKUNTZA ▶

Begirale ikastaroan izena emateko aukera

Laskorain ikastolak eta Urtxintxa eskolak, elkarlanean begirale ikastaroa antolatu dute. Ikastaroa urritik maiatzera bitarte garatuko da, ostiral eta larunbatetan. Izena emateko interesa dutenek, Laskorain ikastolara jo behar harko da. Bete beharreko baldintzak, 18 urte beteta izatea praktikak egin behar dituztenerako eta astialdian aritzea edo aritzeko asmoa izatea izango dira. Matrikula egiteko, argazki bat, nortasun agiriaren fotokopia eta Urtxintxaren matrikulazio fitxa aurkeztu behar harko dute.

POLITIKA ▶

Egungo egoera politikoaz hitz egiteko batzarra

Ekzer abertzaleak batzarrera deitu du gaurko, 19:30etik aurrera, Antonio Maria Labaien kultur etxean. Egungo egoera politikoa eta aurreantzean landuko duten ildoak izango dute hizpide.

Tolosako Udala

2006ko

2006ko Ekainaren lehenengo gaueko Zergari laguntza erabiltzeko konpromisoa onartu behar da. Hurrengo gaueko 2006ko urriaren 24a 2006ko urriaren 10a.

2006ko urriaren 10an bakoitzaren bakoitzeko kutsuak helarazteko agintak, zergatuen emandako kutsuak eta kutsuak onartu behar dira.

Helarazteko kutsuak zergatuen emandako kutsuak eta kutsuak onartu behar dira, bakoitzaren bakoitzeko kutsuak onartu behar dira.

Ekainaren lehenengo gaueko Zergari laguntza erabiltzeko konpromisoa onartu behar da. Hurrengo gaueko 2006ko urriaren 24a 2006ko urriaren 10a.

Urteko zergari laguntza erabiltzeko konpromisoa onartu behar da. Hurrengo gaueko 2006ko urriaren 24a 2006ko urriaren 10a.

Tolosa, 2006ko irailak 18
AUKATZA

MODES IRAOLA ▶ EHIZTARIA

«Esperantzarekin joan beharra dago, bestela ez dago ezer egiterik»

Modes Iraola ehiztari zizurkildarra asteburu honetan lehiatuko da Italian jokatu den Munduko Txapelketan

IMANOL GARCIA

Gipuzkoakoa, Euskadikoa eta Espainiakoa irabazi ondoren, Modes Iraola (Zizurkil, 1946) ehiztaria Munduko Txapelketaren bila abiatuko da gaur Italiara. Igandean lehiatuko da bere txakur Mayo de Belkoainekin, San Huberto modalitatean. Berriki Espainiako kirolari oneni sari banaketara gonbidatu zuen Espainiako Errege etxeak, bere garaipen zerrandarengatik.

Furgoneta hartu eta Italiara zoazte.

Bai, Arenson izango da txapelketa. Furgonetan bi ehiztari joango gara. Antxon Sanchez eta ni, Espainiako Txapelketaren irabazleak biak. Bera nire entrenadorea da eta bere emaztea ere badator, albaitaria dena. Eramaten ditugun txakurak aita- semeak dira, Mayo de Belkoain eta Jiñ de Belkoain, gure etxean hazitakoak biak. Txapelketara begira, ostiralean aurkezpena izango dugu, larunbatean entrenamendua eta igandean lehiaketa.

Hobe furgonetan joatea hezagkinean baino?

Federazioak esaten zigun Madrilerako joateko eta handik hezagkina hartzeko. Baina gero Italian ere autoren bat hartu eta kilometro asko egin behar genituen. Gainera, hezagkinean txakurak eta eskopetak emateko arazoak izaten dira. Aurreko urtean Danimarkara eta orain bi Eslovakiara hezagkinez joan nintzen eta oroitzapen motelak ditut.

Zer esperantza duzu Txapelketarako?

Esperantzak, denak. Esperan-



HITZA

tzakin atera beharra dago etxetik, bestela ez dago ezer egiterik. Orain aspertuta gabiltza, bata eta bestea prestatzen, baina nik uste kilometroak egin ahala, etorriko dela animoa eta gerra emango dugula txapelketan. Italiarrak, etxean daudenez, aurkari gogorak izango dira, baina lehiaketa eremuan ikusiko dugu elkar. Oso ondo prestatuta dauzkagu txakurak eta gu ere ondo gabiltza.

Mundukoan, bigarrena izan zinen orain bi urte eta hirugarrena iaz. Aurten txapela?

Bosgarren aldia da joaten naizena aurten. Ondo prestatuta joaten da jendea. Nik, nire aldetik, gauza on bat daukat: txakurra oso ona da, oso ondo lan egiten duena. Berak egin behar duen lanari laguntzen saiatuko naiz ni.

San Huberto modalitatean lehiatuko zara. Zer izaten da kontuan lehiaketa mota horretan?

Lur eremu jakin bat ematen di-

gute eta 20 minutu izaten ditu ehiztari bakoitzak. Denbora horretan, ahal duzuna egin behar duzu, txukun eta garbi, eta bi ehizaki bota behar izaten dituzu, kasu honetan faisaia edo eper grisa. Lau tiro baino gehiago ezin dira bota. Txakuraren lana ere oso garrantzitsua da.

Irabazi duzun azkeneko txapelketa Espainiako izan zen. Erreza izan zen?

Erreza ez dago ezer. Hau pertika-jauzia bezalakoa da. Urte guztian zaude entrenatzen horretarako eta gero zentimetro erdi batengatik kale egiten duzu. Oso gogorra izan zen Espainiakoa. Aurrena tokatu zitzaizdan ateratzea, txakurra oso ona daukat eta bi ehizakiak oso ondo gelditu zizkidan. Biak tiro banakin bota nituen. Hirugarren ehizakia gelditu zidan eta haren hegaldia errespetatu zuen. Ez zen puntuazio diferentzia handia izan bigarrenarekin.

ZIZURKIL ▶ HIRIGINTZA

Herribideen katalogoa osatu du Udalak

Interesdunek hiru hilabeteko epea dute erreklamazioak aurkeztu nahi badituzte

ERREDAKZIOA

Zizurkilgo Udalak bi bando argitaratu ditu berriki. Bata herribideen katalogoari buruzkoa eta bestea landalurreko katastroari buruzkoa. Herribideen katalogoari dagokionez, berau osatua duela azaldu du Udalak. Bertan, bide pribatu nahiz publikotzat jotzen diren bide guztien fitxa eta kartografia osatu dute.

Dokumentu hori Udalak luzatzen duen «proposamen bat besterik ez da». Horregatik, hiru hilabeteko epea — urria, azaroa eta abendua — izango dute interesdunek egon daitezkeen akatsei buruz erreklamazioak aurkezteko. Dokumentua udal bulegoetan dago ikusgai 09:00etatik 14:00etara, astelehenetik ostiralera. Erreklamazioak egiaztatzen duen dokumentazioarekin batera aurkeztuko dituzte.

Bestalde, Udala landalurreko katastroan dagoen informazioa eguneratzen eta berri-tzen ari da. Prozesu hori «oso garrantzitsua» dela deritzote Udaletik. Alde batetik zerga justiziarengatik, hau da, bakoitzak daukanarengatik ordaintzen du. Bestetik, informazio zerbitzua emateko zergadunari, katastroa geroz eta gehiago erabiltzen baita datu-base gisa. Eta azkenik, jabetza erregistroaren eta katastroaren arteko erlazioa eta beharrezko koordinazioa sendotu nahi dute.

Horretarako, Udala harremanetan jarriko da lursailen jabeekin udal bulegoetara ager daitezen edo Gipuzkoako Foru Aldundiako bulegoetatik jabetzako eskriturekin batera. «Zergadunari zerbitzu gehiago eta hobea ematea da lan honen helburua», adierazi du Udalak bandoan.

ASTEASU ▶ KULTURA



Obaba filmaren irudia. HITZA

‘Obaba’ filma eskainiko dute gaur zine aretoan

Herriarekin lotura berezia duen pelikula, Kultur Jardunaldien gaurko ekitaldian

ERREDAKZIOA

Asteasuko Kultur Jardunaldien baitan, gaur *Obaba* pelikula eskainiko dute udaletxe-ko zine aretoan. 19:00etatik aurrera emango dute Montxo Armendariz nafarrak zuzendutako filma.

Lotura berezia du filma honek Asteasurekin. Izan ere, herriko idazle ezaguna den

Bernardo Atxagaren *Obaba*-koak liburuaren egokitzapena da filma.

Iazko Donostiako Zinemaldia ireki zuen pelikula eta sariak ere jaso ditu, New Yorkeko kritikariek emandako pelikula onenari saria, esaterako. Pilar Lopez de Ayala, Juan Diego Botto eta Barbara Lennie dira aktore nagusienetako batzuk.

iragarki laburrak ▶

LANA

Mantenimendua. Lorezainak, elektrifikariak, arrotzak... behar dira erakunde publikoetarako. 943 31 37 82.

Anbulatorioak. Honako arloetarako pertsonala behar dute: laborategiak, erizaindegia, administrariak, mantenimendua. 943 31 37 82.

BIDEGOIAN ▶

Zabor handien
bilketa etzi
goizean zehar
egingo dute

ERREDAKZIOA

Urola Erdialdeko Mankomunitateak Bidegoiango herritarrei ohar bat jakinarazi nahi die: ostiralean bolumen handikoen bilketa egingo da. Goizez egiten denez, trasteak ostegun gauean ateratzea komeni da, bilketa bereizteko edukiontzi grisak utziz.

Utzi daitezkeen trasteak: altzariak, etxetresna elektrikoak eta bestelako traste zaharrak. Debekatuta dago obretako hondakinak uztea.

Bestalde, traste zaharren bilketa honekin bi bilketa mota egiten dute: alde batek, herritarrek trastea edukiontzia aldamenean utziko du eta bilketa egiten duen enpresak puntu hartatik pasatzean jasoko du. Bestetik, aurtendik bilketa berri bat jarri dute abian; etxeetan egiten den bilketa. Bilketa egiten duen enpresari deituta, herritarren etxera joaten da trastearen bila eta haiek desmuntatzen dute, egin behar denetan. Bilketa honen eskera egiteko 943-857319, edo 943-367534 telefonoetara dei daiteke.

ALEGIA ▶

Ikastaroetan
izena emateko
azken eguna,
hilaren 16a

N. URBIZU

Alegiko ikastaroetan izena emateko epea hilaren 16ra arte izango da. Eskaintzen artean, 3 adineko gimnastika, helduentzako aerobika, aerobik txiki eta eskulanetako ikastaroak daude.

Aerobika: astelehena, asteazkenak eta ostiralak 18:30etik 19:30era izango da; aerobik txiki, 12-16 urtekoentzat: astelehena eta asteazkena 17:30etik 18:30era. 3. adineko gimnastika: asteartean eta ostegunean, 11:00etatik 12:00etara.

Kulturarekin lotuta, eskulanak daude: asteazkenetan 10:00etatik 12:00etara edo 15:00etatik 17:00etara. Memoria tailerra, asteazkenetan 11:00etatik 12:00etara.

ALBIZTUR ▶ HIRIGINTZA



Hauek dira Albizturren jarri dituzten markesinak; herri guztian hiru daude; irudian, erdikoa. N. URBIZU

Herria txukuntzen,
«biztanleen hoberako»

Koskak eta markesinak jarri dituzte;
orain herria lasaiago dagoela nabari da

NEREA URBIZU

Albizturko herria txukuntzen dihardute. Udalaren aldetik, eta baita biztanleek eskatutako ere. Izan ere, herritarrek ikusi zuten kosken beharra. Hala, eskaerei erantzunez, bi jarri zituzten festen aurretik, plaza inguruan.

Gehiago jarri nahi ditu Uda-

lak, baina baimena eskatu behar du, batez ere errepide hori ez dagokiolako Albiztur herriari. Tolosari baizik.

Halaber, herrian zehar hiru markesina jarri dituzte, teilatu eta guzti, eguraldi desatsegina denean babesteko. Plaza inguruko geltokian ez dute autobus geltokirik, baina leku arazoak daude, eta horrez gain, bestee-

baino babes gehiago daukate, zuhaitza eta elizako horma, esaterako.

Baserrien seinaleak

Tolomendik lagunduta, 55 puntuetan jarri dituzte herrian, 10 bat egunetan, baserrietara joateko bideak zehazki zein diren jakiteko. Tolomendik ehuneko 50a ordaindu du. Egurrezkoak dira, eta herriko estetikarekin bat datoz. Honekin, herriko etxe guztien izenak ikasiko dituzte herritarrek.

ALBERTO LABAKA ▶ ALBIZTURKO ALKATEA

«Balio anitzeko gela bat egiteko
asmoa dugu, udaletxearen gainean»

Albizturko alkateak azkenaldian egindako berrikuntzak gogoratu ditu. Udalak egindako proiektuak markesinak, koskak eta baserrien izenak jarri ditu.

Udalaren proiektuak dira denak?

Bai. Herriak eskatutakoak izan dira alde batetik, eta Udalaren asmoen artean zeuden, batez ere koskena. Tolomendik baserrien kokapenaren seinalizazioarekin lagundu zigun, eta markesinetan diputazioak ehuneko 50a ordaindu zuen.

Nabaritzen al da kosken eraingina?



N. URBIZU

Bai. Jendeak ere nabaritzen du. Bi daude, berez Albizturri dagokion errepide zatian. Gainera autoei kalte gehien egin dakiokkeenak dira, altuera gehiagorekin, alegia.

Beste proiekturik baduzue?

Bai, gasa pasa nahi dugu erdiko tabernatik behekora. Ur kanal berria ere egingo dugu, beheko tabernatik plazaraino. Bi depositoak batu nahi ditugu, eta hartara garbitu egingo ditugu. Horrez gain, udaletxearen goiko aldean balio anitzeko gela antzeko bat egiteko diru-laguntza eskatu diogu Aldundiari. ◀

AMEZKETA ▶

Nafarroa
Oinezera joateko
izen-ematea

Hilaren 15ean Nafarroa Oinezera joateko aukera zabaldu dute Amezetako Euskara Elkartek eta Gazte Taldeak. Horretarako autobusa antolatuta nahi dute, eta joan nahi dutenek Amezetako ohiko tabernetan eta Zumadi eskolan eman beharko dute izena. Autobusean bertan ordaindu beharko da. Ahalik eta jende gehiena animatzea nahi dute, bai amezketarrak, baita kanpotarrak ere.

ALBIZTUR ▶

Jubilatuak
arabar Errioxara
doaz larunbatean

Larunbatean Albizturko jubilatuak arabar Errioxako ardo museoan izango dira. Gaur da izena emateko azken eguna. 08:30ean aterako da autobusa. Lekua egonez gero jubilatuak ez direnak ere joan daitezke.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112))
Osasuna.

▶ Alegialdea. Osasun z.: 653212

▶ Anoeta-Alkiza-Herialde.

Medikua: 65 23 39

▶ Asteasu. Medikua: 692423

▶ Baliarrain. Medikua: 889003

▶ Berastegi-Elduain. Medikua:

683361

▶ Bidegoian. Medikua: 681134

▶ Ibarraldea. Osasun etxea:

672411

▶ Ikaztegieta. Medikua: 653329

▶ Irura. Osasun zentroa: 690720

▶ Leizta. Osasun z.: 948 510800

▶ Orendain. Medikua: 655595

▶ Orexa. Medikua: 682228

▶ Tolosa.

▶ Anbulatorioa, larrialdia: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amaroako dispen.: 672637

▶ Asunzion klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ DYA: 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ Villabona. Anbulat.: 006970

▶ Zizurkil. Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ Taxia: 670420

▶ Taxia (Leizta): 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ Tolargi: 650016

▶ Iurramendi egoitza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

BERROBI ▶ HIRIGINTZA

Jalgi hadi plazara

Azpian aparkalekua izango duen plaza berria prest izango dute 2007 hasierarako

MADDI SOROA

Bada pozik egoteko arrazoirik Berrobin. Urte erdi barru, azpian aparkalekuak dituen plaza berria izango baitu herriak herritarrentzat.

Irailaren erdian ekin zioten proiektu berriari. Hasiera batean, zazpi hilabete eta erdian lan guztiak bukatzea aurreikusia bazuten ere, Jon Jauregi alkateak esandakoaren arabera «uste baino azkarrago doaz gauzak»; beraz, «baliteke bost hilabeteren inguruan dena amaituta egotea». Bost hilabete zehar jasan beharreko soinuak, zikinak eta lanen ondorioz sortzen diren eragozpenek mereziko dute, ez bairrik gabe, guttiz aldatuko baita Berrobiko plaza.

Guztira bost aldaketa nagusi burutuko dituzte. Batetik, lehendik zegoen plaza baino handiagoa izango den berri bat egingo dute. Harizko lurra izango du eta eserlekuek beteko dute inguru osoa. Enparantzaren erdian, berriz, antzina jauregi bati zegozkion harri landuekin egindako kioskoa jarriko dute, erabilera anitzetako izango delarik.

Plazaren azpian, berriz, 25 autorentzako tokia izango duen banakako garaje itxiak egingo dituzte. Aipatu, garaje horiek alokairuan hartu edota erosteko aukera izango dutela herritarrek, ondorengo egunetan publikoki aterako diren zerrendatan izena emanez. Proiektu honekin «aparkalekuaren arazoa konponduko» dela uste du herriko alkateak, izan ere «herrietako arazorik nagusia kotxeak aparkatu ezina» dela uste baitu.

Lanek ekarriko duten hirugarren berrikuntza, haurrentzako jolas parke berria izango



Bost hilabete barru lanak amaiturik egongo direla uste dute Berrobiko Udalekoek. MADDI SOROA

da. Ikastolaren parean, aisialdirako parkea egingo baita eserleku eta mahaiekin. Aipatu, lehengo plazan zeuden zuhaitzak, haurrentzako jolas-tokian birlandatu dituztela.

Proiektu berriak ekarriko duen laugarren aldaketa Ibaigain auzo parean egingo diren aparkaleku publikoak izango da. Bertako bizilagunek, 12 edo 15 aparkaleku inguru izango baitituzte etxe parean.

Lanek ekarriko duten azken berrikuntza, gas depositoarekin toki aldaketa izango da. Tokiz aldatzeaz gain —lehen plazan zegoen, orain Iriarte jatetxearen albo batean egongo da—, ordea, handitu egingo dute, modu horretan, etxe gehiagok

DATUAK ▶

Lanen hasiera. Irailaren erdialdera ekin zieten lanei.

Lanen amaiera. Zazpi hilabete eta erdiko epea aurreikusia bazuten ere, bost hilabeteren inguruan dela uste dute.

Zer egingo da. Azpian aparkaleku pribatuak izango dituen plaza handitu eta berrituko dute, haurrentzako parkea egingo dute eskola parean eta aparkaleku publikoak jarriko dituzte Ibaigain auzoan.

Heburua. Kultur ekintzak bultzatzea eta aparkalekuaren arazoa konpontzea.

izango dutelarik gasa jasotzeko aukera.

Herria bizituz

Proiektuaren zergatiaren inguruan «aurreko legegaldian ohartu ginen beharrezkoa zela plaza hobetzea», azaldu du alkateak. Era berean, erabilpen nagusienetako bat ekintza kulturalak gehitzea izango dela adierazi du Jon Jauregi, izan ere, «urtean zehar ekintza kulturalak egiteko asmoa dugu, hilean behin musika emanaldiak, adibidez». Modu horretan, «herriko jendea herrian geratuko da edota beste herrietatik jendea Berrobira etorriko da», uste du.

BERROBI ▶

Jolas, kantu eta dantza ikastaroa lau egunez

Urtxintxa taldeak, 0 eta 3 urte bitarteko haurrentzat jolas, kantu eta dantza ikastaro antolatu du, Berrobin. Ikastaroa lau egunetan banatuko dute, hilaren 17an, 19an, 24ean eta 26ean, hain zuzen ere; egun bakoitzean bi orduko saioa egingo delarik. Interesatuak, honako telefono zenbakira hots egin beharko dute hilaren 11 baino lehen: 943 69 37 31.

INGELES ▶

Ingeleseko mintza praktika egiteko aukera

Ingeleseko mintza praktika egiten interesaturik dagoenak badu horretarako aukera. Izan ere, hamabostean behin eta asteazkenetan, ingelesez mintzatu eta hizketa hobetzeko aukera sortu baita. Interesatuak, dei dezatela honako telefono zenbakiarekin batera: 943 69 31 73 edo 943 69 41 10.

GAZTELU ▶

Gaur, osasunari buruzko jardunaldia

Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutzako ikasgelak sustatuta, osasunari buruzko jardunaldien hurrengo saioa izango da gaur 17:00etan herriko elkarteetan. Landuko den gaia, *Osasun Zentroa: adineko pertsonentzako erabilera gida* izango da. Hitzaldia bereziki jubilatuei zuzendurik dagoen arren, edozeinek har dezake parte gaur burutuko den jardunaldian.

iragarki laburrak ▶

Pablo Gorosabel, 40
1. pisua - 7. bulegoa
20400 TOLOSA
Tel. eta Fax: 943 65 55 87
mug.: 669 368 994

Alkiza. Familia bakarreko baxleta salgai, 4.000 m²ko lursailarekin eta 120 m²ko hiru solairurekin.

Baraibar. 2.000 m²ko partzelan borda eraberritua salgai.

Belautza. Pabiloia alokairuan, bulegoak, komunak eta abar.

Belautza. Bifamiliarra: bi solairu eta 270 m²ko lursailarekin.

Berastegi. Familia bakarreko etxea salgai. 3.500 m²ko lursailarekin.

Berastegi. Bi solairuko borda salgai, solairu bakoitza 100m²koa.

70.000m²ko lursailarekin.

Hormilla (Errioxa). Naxeratik

3kilometrotara, txikituriko etxetan azkena. Lorategia, terraza eta pizinarekin. 173.000 euro.

Legorreta. 30.000 m²ko landako lursaila salgai.

Tolosa. Zumalakarregi, 150 m²ko etxebizitza salgai, egoera onean.

Tolosa. Pablo Gorosabel. Gela bateko apartamentua. Garajea aukeran.

Tolosa. Zabalarreta. Etxebizitza salgai. 3 logela, egongela, sukaldea, terraza, bainugela, komona,

trasteleku eta garaje itxia.

Tolosa. San Frantzisko, 75m²ko atikoa salgai. Eraberrituko.

Tolosa. Errementari kalean, 3 logelako atikoa. Egongela, sukaldea, eta bainugelarekin. Berritua.

Tolosa. Errementari. Etxebizitza salgai. Eraberritua. 2 logela, 24m²ko egongela, bainugela eta sukaldea.

Igogailua jabearen esku.

Tolosa. Santa Klara, 90 m²ko etxebizitza salgai. 4 gela, sukaldea, egongela eta bainugelarekin.

Tolosa. Benta Haundin, bi solairuko etxebizitza salgai.

Tolosa. San Esteban, kanpora begirako etxebizitza salgai. 100m².

Berritu beharrekoa.

Tolosa. Aldaba, bi etxebizitzetan bananduriko baserria salgai. Berrituko.

Tolosa. Maituna zaharra. 15 garaje berri, guztiak itxiak. 30 m²tik aurrera. Karga-jasogailuen bitarteko bidea.

Eraikitze bidean.

Tolosa. Belate. Trasteleku berriak, argia eta aire erazugailuarekin. 9.480 eurotan

Tolosa. Pablo Gorosabel. 50 m²ko bulegoa alokairuan.

Etxebizitza alokairuan. Alokairuan dauden etxebizitzetan inguruko informazio gehiago bulegoan bertan.

ARESO ▶ EHIZA

«Arrakasta osoz» amaitu da ehiza postuen enkantea

laz baino jende gehiagok hartu du parte, eta ondorioz, diru gehiago bildu dute

MADDI SOROA

Pasa den larunbatean egin zen dena erabakita utzi zuen birigarro eta uso postuen enkantea, eta ordu bete inguruz, jende andana batu zen Aresoko udaletxean. Iazkoarekin konparatuta, jende gehiago hurre-ratu zen enkantera eta, ondorioz, iaz baino diru gehiago atera ahal izan zen bertatik.

Mikel Baraibar Aresoko alkatea «gustura» azaldu da lortutako emaitzarekin, eta balorazio positiboa egin du aurtengo enkantearen inguruan, izan ere «beste urteetan baino jende gehiago etorri da, baita inoiz etorri ez den jendea ere». Gainera, inguruko herrietan baino diru gehiago bildu dela adierazi du alkateak eta «pozik» dago horregatik ere. Izan ere, «beti Gorriti izan ohi dugu erreferentzia, han ere enkantea egiten baita; aurten, ordea, beste urteetan baino diru gutxiago batu dute eta Areson ere gauza bera gertatuko zenaren beldur ginen».

27 postu atera dira guztira enkantean, dirutan 34.000



Birigarro eta uso enkanteko postuak Urteaga mendian daude banaturik. JAIONE ASTIBIA

euro elkartu direlarik, iaz baino 1.000 euro gehiago. Birigarroetarako erabiltzen den 5. postua izan da garestiena, 3.836 euroko prezioa izan duelarik. Alkatearen hitzen arabera, 5. postua ez omen da posturik onena, baina «askotan jendeak bukaerara arte itxaroten du eta gero ezin du besterik hartu».

Usoetarako diren 22. eta 23. postuek, berriz, nabarmen egin dute gora aurten: 2.423 euro ordaindu dituzte lehenengorenatik, eta 2.655 euro bi-

garrenarengatik. Aresoko Urteaga mendian postuak hartu dituztenen jatorriari dagokionez, gehienak gipuzkoarrak dira, azaldu du Mikel Baraibarrek; Hernanitik, Donostiatik, edota Tolosatik joaten omen da jendea, besteak beste. Nafarrik ere bada, ordea, tartean, Iruñaldekoak, batez ere. Ehiztarien adinari dagokionez, berriz, batez besteko adina 40 eta 50 urte bitartean kokatzen dela gehitu du alkateak, hala ere, «gazte askok ere hartu du aurtengo ehizerako postua».

Aresoarrak ez dira esku hutsik geratu. Urdanetako postuak Aresotik at bizi den jendeak hartzen dituen arren, Peña, Perratokieta, Museo eta Gañarbe inguruan badute ehizaz gozatzeko aukera. Denboraldia amaitu arte, egun bakoitzean lau postu aurreratzen dira zerrendan, guztiak pasatzen direlarik 35 postuetatik.

Urteagan edota Peña inguruan ez da ehiza aukerarik faltako. Iaz baino denboraldi hobea egingo duenaren esperantzaz daude ehiztariak.

ANOETA ▶

Pintura, antzerki, marrazki eta plastika ikastaroa

Anoetako udaletxeak, marrazki, pintura, antzerki eta plastika ikastaroa antolatuta du LH1etik aurrerako ikasleentzat. Ikastaroa urriaren 16ko astean hasi eta abenduaren 22an amaituko da. Eguna eta ordua zehazteke daude. Interesaturik daudenak hilaren 9a baino lehen eman beharko dute izena udaletxean bertan.

TOLOSA ▶

Ertzaintzaren bandaren emanaldia

Ertzaintzaren bandak musika emanaldia eskainiko du bihar goizean, 11:00etan. Tolosako Iurramendi egoitzan, bertan daudenei zuzendua.

ANOETA ▶

Xakean ikasteko aukera gazteenentzat

Anoetako gaztetxoenek badute xakean ikasteko aukera, izan ere, Udalak antolatuta xake ikastaroa hasiko da hilaren 16ko astean. Amaiera, berriz, abenduaren 22an izango da. Eguna eta ordua zehazteko bilera egingo dute. Interesaturik udaletxean edota Anoetako ikastolan eman dezakete izena hilaren 9a baino lehen.

TOLOSA ▶

Laskoraingo ikasleen batxilergo titulua

2005ean Laskorain ikastolan Batxilergo ikasketak amaitu zituzten ikasleek Orixe Institutura joan beharko dute titulua jasotzera. Gogoratu, beharrezkoa dela NAN dokumentua aurkeztea, eta norberak jaso behar duela nahi eta nahi ez.

TOLOSA ▶ KULTURA

Karlos Linazasororen 'Denbora aleak' poesia liburua, Euskadi Sarietako finalisten artean sailkatu da

Euskarazko literatura atalean lehiatuko da, eta azaroaren 28an jakingo da irabazi duen ala ez

ERREDAKZIOA

Karlos Linazasoro tolosarraren *Denbora Aleak* poesia liburua Euskadi Sarietako finalisten artean sailkatu da, Euskarazko Literatura atalean. Berarekin batera lehiatuko dira, Pruden Gartzia, *Lazarraga*, *Ernazimintua euskaraz* lanarekin; Koldo Izagirre, *Sua nahi*, *Mr Churchill?* narrazio laburren liburuarekin; Xabier Montoia, *Bingo (poemak 1981-2000)* poesia lanarekin eta Iban Zaldúa, *Etorbizuna: hamabost ipuin ia politiko* liburuarekin.

Euskadi Sarietan, aurreko urtean argitaratutako liburu egileen lanak saritzen dira. Literaturako hiru arlo ezberdine-

tan zatit daude sariak: euskarazkoentzat, haur eta gazte arlokoentzat, itzulpenengintzakoentzat eta gaztelaniazko literaturakoentzat. Aurtengo Euskadi Literatura Sariak azaroaren 28an erabakiko dira.

Denbora aleak liburuan, denboraren iragaitearen eta bizitzak emandako pozen eta minen inguruko hausnarketa egin du Karlos Linazasorok poemak bitartez. Lan hau irabazle suertatuko balitz, 18.000 euro eramango lituzke tolosar idazleak.

Iaz, Harkaitz Canok jaso zuen euskarazko sari nagusia, *Belarraren ahoa* izeneko lanarekin. Euskadi Sariak 1982. urteaz gero ematen dira. Aurten-

goa hamargarren aldia da egungo oinarriekin erabakitzeko delako, hau da, argitaratutako lanei zuzenduta, literatur generoetan bereizketarik egin gabe, haur eta gazte literatura eta itzulpenengintzara zuzendutako sari berezietekin, eta kanpo zabalpena bultzatzeko asmoarekin.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

Eztabaida. «Bullyng-a zergatik ematen da? Ikasle batzuk tratatu txarrak jasotzen dituzte. Gure gurasoek jasaten zuten erasorik?».

Bigarren aldiz

Aurtengo finalisten zerrendari begiratuta, eta lehiaketak gaur duen formatuarekin, Karlos Linazasorok, lehendik ere badu sari bat irabazia. Duela bost urte, 2001ean izan zen, haur eta gazte sailaren barruan, *Bota gorriak* lanarekin.

iragarki laburrak ▶

LANA

Tabernaria. Neska euskalduna behar da Tolosaldean 4 orduz lan egiteko. Eskarmentuduna. Interesaturik deitu 635 74 52 91 telefono zenbakira.

Ile-apaintzailea.

Tolosan ile-apaintzailea behar da. Esperientziarekin. Kontratu finkoa eta gizarte-segurantzak. Interesaturik dei dezakete 625 70 50 59 telefonora.



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Alegia. Aralar Institutuko liburutegian sexu heziketari buruzko hitzaldia izango da ostegunear, hilaren 5ean, 18:00etan. Gurasoei zuzendutakoa izango da, eta denak daude gonbidatuta.

Amezketak. Nafarroa Oinezera joateko autobusa antolatuta dute. Izen-ematea herriko ohiko tabernetan eta Zumadi eskolan.

Anoeta. Naiara Ortega podologoaren bisita izango dute Alkartasuna biltokian, 14:45etik aurrera.

Belauntza. Eskulan ikastaroan parte hartzeko izen-emate epea zabalik dago. pintura, dekorazioa, joskuntza lanak, bainika... irakasle baten laguntzaz. Ikastaroa urriaren 4ean hasiko da, eta asteartero 17:30etatik 19:30etara iraungo du. Prezioa 10 euro hilaibetean.

Berrobi. 0 eta 3 urte arteko haurrentzat, jolas, dantza eta kantu ikastaroa, urriaren 17, 18, 24 eta 25ean (egunean 2 ordu). Izen-ematea, urriaren 11 baino lehen. 943 69 37 31 (Olga).

Gaztelu. Uli Mankomunitateak antolatuta eta Kutzako ikasgelak sustatuta, osasunari buruzko jardunaldien hurrengo saioa, 17:00etan herriko elkartearen. Landuko den gaia: Osasun Zentroa; adineko pertsonentzako erabilera gida izango da. Hitzaldia bereziki jubilatuak zuzendurik dagoen arren, edozeinen har dezake parte.

Irura. Pintura dekoratiboko ikastaroa urriaren 10ean hasiko da, 2007ko ekaierara arte iraungo du eta arratsaldez izango dira eskolak, 16:00etatik 17:30era helduak eta 17:30etik 19:00etara haurrak. Izena emateko Irurako Udaleko kultura bulegora edo liburutegira joan behar da edo 943 69 13 33 telefono zenbakira deitu.

Tolosa. Bihar, Ertzaintzaren bandaren kontzertua, lurreamendin, 11:00etatik aurrera, egoitzako kaperan bertan.

Tolosa. Ezker abertzaleak deituta, batzarra egingo dute gaur, 19:30ean, Kultur Etxean. Gaia: Eguneko egoera politikoa eta

Tximistaren omenez

TOLOSA ▶ Pio Baroja idazlearen heriotzaren 50 urte bete direla eta, batel lehiaketan hartu zuen parte Orixek



Tolosako Orixe institutuko arraunlariek irabazi zuten Tximista kapitaina I. Lehiaketa. HITZA

ERREDAKZIOA

Aurten betetzen dira 50 urte Pio Baroja idazlea hil zela. Hori dela eta, ospakizun handiak ari dira egiten Bidasoa bailaran, literarioak, festa girokoak, kulturalak, kirrol ekintzak... Hala, ikasle gazteentzat bereziki zuzenduta antolatzaileek batel lehiaketa bat egitea pentsatu zuten Bidasoa ibaian; horretarako Pio Barojaren eleberririk bateko pertsonaia berreskuratu zuten. Tximista kapitaina, hain zuzen ere. Hogeita hamar gaztek hartu dute parte lehen txapelketa honetan hainbat ikastetxetatik etorriak. Tolosako Orixe institutuko ikasleak bertan izan ziren. Eta irabazi egin zuten, gainera.

Arraunlari gazte hauekin batera Irundik —Plaiandi eta Pio Baroja ikastetxetatik—, Hondarribitik, Algorta-Getxo eta Ondarroatik heldutako kirolariak lehiatu ziren.

Festa giroa izugarria izan zen, joan den larunbatean. Jakina da Pio Barojaren mundu literarioa oso errotuta dagoela itsaso eta, batik bat, Bidasoa zonalde honekin. Batelen festa honetan idazlearen iloba egon zen, Pio Caro Baroja, eta zoraturik pasatu zuen egun osoa. «Giro barojianoa» omen zen erabat, berak adierazi zuenez. Oso ondo pasatu zuten bertaratu ziren guztiek, azkenean anai arteko bazkari batekin itxi zutelarik egun gogoangarri hau.

Festa eta ospakizun honen txanpa aprobetxatuz, Orixe institutuko zuzendari den Juan Agirrerri bururatu zaio txapelketa honek segida on bat izan dazakeela. Hala, lehiaketa hau bera ospatu nahi du datorren urtean Tolosan bertan eta hurrengo berriz Irunen. Ohitura hau sendotuko balitz, dio Juan Agirrek, «posible litzateke martxan jartzea Euskadiko ikastetxeen Arraun Txapelketa». Ideia ona litzateke, eta «seguru ikastetxe eta erakunde ofizial askok, udaletxeek zein Diputazioak, bere laguntza eskainiko dutela proiektu eder hau laster batean gauzatu dadin». Zorionak, beraz, Orixe institutuko arraunlari gazte hauei.

aurrerantzean landuko den ildoak.

Tolosa. KZguneko urriko ikastaroetan izen-ematea zabalik. Interesatuak 943 65 37 20 telefono zenbakira deitu.

Tolosa. Gaurtik hilaren 16ra arte, 17:00etatik 20:00etara, Tolosako Ekinbide Etxeak Emeterio Arrese kaleko 2. zenbakian duen bulegoan salgai jarriko dira 38. Abesalga Lehiaketarako abonoak. Hilaren 19tik aurrera sarrera solteak jarriko dira salgai.

Tolosaldea. ETBko Mihiluze saiorako lehiakide bila dabilta. Izena emateko edo publiko gisa joateko, 943 01 17 80 zenbakira deitu edo Mihiluze@eitb.com helbidera idatzi.

Tolosaldea. Urriaren 8an, AHTren aurkako AHT Gelditu! elkarlanak manifestaziorako deia egin du Legutition. Bertara joateko autobusa antolatuta dute. Txartelak 8 eurotan eros daitezke Tolosako Rakun eta Meskalen, Ibarra Atarin eta Zubiaurren, Villabonako Gaztetxean, Zuzurkilgo Aurreran, Adunako Uztartzan eta Anoetako Itzulin.

ZINEMA

Asteasu. *Obaba* filma izango da ikusgai, udaletxeko zine aretoan, 19:00etan, kultur jardunaldien baitan.

Tolosa. Zine forum saio berriaren baitan, bihar, 21:30ean, Michael Haneke zuzendariaren *Escondido* filma.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Leizta. Gimeno, A. Elbarren, 512. 112.
Tolosa. Morant, R. Zabalarreti, I. 943 67 38 49.

IRRATIA

Txolarre irrati
(107.5, 101.2 FM)
11:00-14:00. *Tolosaldeko ahotsa* magazina: eguraldia Joxe Landarekin, Hitzaren errepasoa, elkarrizketak, agenda, lehiaketa, disko eskainiak...
18:00-19:00. *Adi Guri* irratsaioa, Anoetako Herri Ikastolako DBHko 1. eta 2. mailako ikasleentzako.
21:00-22:00. *Zaharrak berri.*
22:00-23:00. *Street.*

▶ HITZAK ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanetan eta iritzien erantzukizunik.

AGURRAK ▶

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

▶ HITZAren egoitza Tolosan Araba etorbidea, 5 behea

▶ HITZAren egoitza Leitzan Udaletxeko bulegoa

hitza
agurren tartea

Urtebetetzeak,
urrezko ezteiak,
ezkontzak, jaioberriak...